

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

8. saio irekia.

Euskara Kultura Aretoa [2025/03/24]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Martxoak 24, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu eta laurden.
- **Ordutegia:** 18:00etatik 20:15etara.
- **Lekua:** Euskara Kultura Aretoa
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri eta Goiener

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 14 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 2

- Gizonak: 12

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 1

30 – 39 urte: 1

40 – 49 urte: 2

50 – 59 urte: 8

60 – 69 urte: 2

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

1. Informazioa eguneratu: Talde sustatzailea azken harremanetatik ateratako gaiez eta ireki diren aukera berriez informatu
2. Talde sustatzailearen kohesioa: Lantaldeetatik etorritako gaietan lehenengo erabakiak soziokraziaren baitan hartzen hastea

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu. Aurreko saioaren balorazioa egin du eta etorri ez direnentzako laburpentxo bat. Pasa den Udala eta ikastolarekin izandako bileran irekitako aukera berria azaldu du: Hasiera batetan udala eta ikastolaren artean Lezoko eraikinean egitekoak ziren instalazioa Energia Komunitateak egiteko eta Gipuzkoako Foru aldundiko diru-laguntzak uztartzeko aukeraren berri eman du. Ondoren gaurko saioaren ordena azaldu du.

2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta aurreko saiotik hona eginiko lanak laburbiltzeko ariketa egin dugu.

- Talde Juridikoak Komunitate ezberdinek dituzten estatutuetan arteko ezberdintasun nagusiak azaldu dituzte, aurreko saioan euren partaidetza faltatu zelarik hanka motz geratu zelako gaia. Egoera honetan, Energia Komunitatearen sorrera azkartu behar izatearekin, kooperatibaren estatutuen proposamena prestaketa hasteko konpromisoa hartu dute.
- Lizeoa Proiektua: Ikastola - Energia Komunitatea proiektuaren aukera berriaren xehetasunak eman ditu Jokinek.
- Komunikazio Tadeak komunitatearen izena proposatu du: **Kunkana**. Komunikazio taldean proposatu diren izenen artean gehien gustatu dena izan da eta Lezoko komunitatearentzako oso egokia iruditu zitzaion. Gertaerak hartzen ari diren abiada kontuan izanik markaren diseinua eta kanpaina hasteko beharrezkoa ikusten da erabakia laster hartzea.

3.- Formazio pilula: Txirotasuna eta bideragarritasuna

Oier Etxebarriak energia txirotasuna zer den azaldu du. Energia komunitateak giza talde zaurgarriengana iristeko izaten ari diren arazoak agerian geratu dira eta honen inguruan lanketa sakonagoa egiteko beharra azaldu da. Honi loturik komuniteteraren bideragarritasuna lortzen laguntzeko excel-eko tresna aurkeztu du, bazkidetzek, borondatezko ekarpenek eta erabiltzaileen kuotek honi nola aurre egin simulatu ahal izateko.

4.- Erabakiak

Sustapen taldearen erabakigunea lantzeko ariketa egin da. Oier Etxebarriak Soziokraziaren azalpena eman du eta ondorengo erabakiak hartu dira modu honetan:

- Lezoko Energia Komunitatearen izena onartu da: **KUNKANA** Lezoko Energia Komunitatea
- Lizeo - Kunkana proiektuarekin aurrera egin eta Diru-laguntza eskatzeko proiektua garatzea onartu da

5.- Hurrengo pausoak

Hurrengo bilera 2 aste barru egitea adostu da, **apirilak 7 astelehenean**. Aste Santua eta Pazko asteetako oporraldien aurretik lanak aurreratu ahal izatea ezinbesteko ikusten delako. **Lantaldeek hurrengo astean biltzeko ardura hartu dute** estatutuak prestatzeko, diru-laguntzaren eskaera lantzeko eta bideragarritasunaren excel-eko tresnaren erabileran sakontzeko-

Hurrengo saiora Oier Etxebarriak Kunkanaren bideragarritasunaren simulazio erreala azalduko luke.

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera, baina printzipioz Euskara Kultura aretoan izango litzateke.